

Pascuala Rezola Letamendia

*Bidania-Goiatz,
Gipuzkoa
(1922-2013)*

Aurkibidea

Biografia



Bidaniako Usarragazarra baserrian jaioa. Bere jaiotetxea ezaguna da, duela 400 urtera arte Gipuzkoako Batzar Bereziak bertan egiten zirelako. Pascualak ez zuen halakorik bizi izan, noski, baina bai gerra garaian bere etxean egiten ziren mitinak. Aitaren heriotza zela eta 18 urterekin egin behar izan zuen baserriaren kargu. Ezkondu eta baserria aurrera atera zuten. Elkarriketa garaian ere Usarragazarran bizi zen.

Zintak

BID-014

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-12-09
- **Iraupena:** 155 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

BID-016

- **Proiektua:** Euskal Herriko Ahotsak
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artetxe, Miren
- **Data:** 2009-12-16
- **Iraupena:** 35 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Arteaga, Karmele

Pasarteak

1. Etxeetan zerbitzatzen

- **Erref:** BID-014/002
- **Iraupena:** 0:03:55. **Hasi:** 00:01:19. **Bukatu:** 00:05:14

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Gaixotasunak
- Baserria » Baserriko bizimodua
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Baserrian jaio eta hazi, eta bertatik gutxi atera zen. Neskame bidali zuten, eta gaixoturik itzuli behar izan zuen. Aldameneko baserri bateko amak flebitis harrapatu, eta bi urtez mugitu gabe egon behar izan zuen. Pascuala etxe hartara eraman zuten familia hartaz arduratzen. Etxeko andrea sendatu zenean, Tolosara joan zen zerbitzatzera. Laster itzuli behar izan zuen etxera, anaia gerran hil ondoren aita gaixotu zitzaielako.</p>

2. Gerra hasi zenean, Andoainen neskame zegoen

- **Erref:** BID-014/004
- **Iraupena:** 0:04:25. **Hasi:** 00:05:27. **Bukatu:** 00:09:52

Gaia(k):

- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren hasiera
- Politika » Gerra zibila (1936-1939) » Gerraren eragina

Laburpena:

<p>13 urte zituela, gerra hasi zen. Garai hartan, Andoainen zegoen zerbitzatzzen. Etxeko balkoitik begira egoten zen. Etxekoek galdu egin zela pentsatu zuten. Soldaduak Donostia aldetik etortzen ziren. Kanoiak eta kamioiak ere ikusi zituen. Egun batzuk pasa ondoren, etxera eraman zuten Andoaindik. Soldaduak etxeetan janari bila ibiltzen ziren. Pascualak ez zuen beldurrik pasa.</p>

3. Eskola utzi eta laster neskame joan zen

- **Erref:** BID-014/005
- **Iraupena:** 0:01:40. **Hasi:** 00:09:52. **Bukatu:** 00:11:32

Gaia(k):

- Lanbideak » Neskameak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskolaz aparteko ikasketak

Laburpena:

<p>13 urte zituenean eskola utzi zuen. Oporrak pasa ondoren koltxa bat egin nahi zuela esan zion amari. Orduan neskame joateko proposamena iritsi zitzaion, eta bertan behera utzi behar izan zuen koltxaren proiektua.</p>

4. Neskameek egin beharreko lanak

- **Erref:** BID-014/006
- **Iraupena:** 0:04:04. **Hasi:** 00:11:32. **Bukatu:** 00:15:36

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Lanbideak » Neskameak
- Baserria » Baserriko lanak

Laburpena:

<p>Neskame bezala zein lana izaten zituen kontatzen du: marmidak eraman, etxeetan esnea partitu, belarretara, egurrera... Baserri hartan bost ume zituzten. Andoaingo Cordoba baserrian lana egin zuen.</p>

5. Neskameen lanak

- **Erref:** BID-014/007
- **Iraupena:** 0:01:58. **Hasi:** 00:15:36. **Bukatu:** 00:17:34

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Umeak zaindu behar izaten zituen. Sukaldeko lanetan ere ibiltzen zen. Neskamea etxeko bezala tratatzen zuten. Baserrietako neskameak eta etxe aberatsetako neskameak ez zeuden egoera berean.</p>

6. Bidaniko eskolan mojak erakusten zuten

- **Erref:** BID-014/008
- **Iraupena:** 0:02:26. **Hasi:** 00:17:34. **Bukatu:** 00:20:00

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Bidaniko eskolan mojak zeuden. Batek dotrina bakarrik erakusten zien. Goizeko moja, berriz, erdalduna zen, eta hark beste gauza batzuk erakusten zizkien. Erdaraz moldatzen ikasi zuten. Arratsaldean eskulanak izaten zituzten.</p>

7. Ume txikiak nola zaintzen zituzten

- **Erref:** BID-014/009
- **Iraupena:** 0:03:01. **Hasi:** 00:20:00. **Bukatu:** 00:23:01

Gaia(k):

- Baserria » Baserriko bizimodua
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Argindarra eta ura

Laburpena:

<p>Ume txikiak janzteko faja deitzen zuten oihal bat erabiltzen zen. Etxean hamar ume zituzten, eta bizilagunek beste hamar. Sukaldean urik ez zuten eta kanpotik eltze handi batean ekarri behar izaten zuten, umea zintzilik zeramatera. Bizilagunekin konfiantzako harremana zuten.</p>

8. Eskulanen erakusketa Bidaniko eskolan

- **Erref:** BID-014/010
- **Iraupena:** 0:05:11. **Hasi:** 00:23:01. **Bukatu:** 00:28:12

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Mojak
- Euskara » Euskararen egoera
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

<p>Eskolan erdaraz ikasten zuten. Sartu eta lehen lana umeen faja egiten ikastea izaten zen. Galtzerdiak egiten ere ikasi zuten. Urte amaieran erakusketa bat antolatzen zuten, eskulan haiek herriari erakusteko. Kakorratz lanak, gurutze puntua, bodokeak, parpailak eta hainbat gauza ikasi zituzten. Eskulan horiek egiten jakitea oso garrantzitsua dela iruditzen zaio. Orain, berriz, dena bota eta berria ekartzen dute.</p>

9. Hainbat arropa etxean egiten zituzten

- **Erref:** BID-014/011
- **Iraupena:** 0:02:14. **Hasi:** 00:28:12. **Bukatu:** 00:30:26

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Lanbideak » Sastreak, jostunak

Laburpena:

<p>Galtzerdiak eta jertseak beraiek egiten zituzten. Alkandorak, azpiko gonak eta abar egiten ere ikasi zuten. Maindireak egiten zituzten eta mahai-zapiak ere bai. Telak eta hariak Tolosatik ekartzen zituzten.</p>

10. Dotrina, komunioa, prozesioak

- **Erref:** BID-014/013
- **Iraupena:** 0:02:46. **Hasi:** 00:31:16. **Bukatu:** 00:34:02

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Jantzi eta orraztu » Arropa eta oinetakoak
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Apaizarengana dotrina ikastera joaten ziren eta komunioa prestatzera. Jaunartzea egiteko jantziak ez ziren oraingoak bezalakoak. Komunioa egin ondoren, ez zen bazkari handirik egiten. 11 urte bete ondoren komunio handia egiten zuten.</p>

11. Dotrina aldatu egin zuten

- **Erref:** BID-014/014
- **Iraupena:** 0:01:53. **Hasi:** 00:34:02. **Bukatu:** 00:35:55

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Dotrina

Laburpena:

<p>Pascualaren garaian dotrina aldatu egin zen. Dotrina lehenengo ikasten zuenari apaizak tela bat oparituko ziola agindu zien. Dotrina erabat aldatu zen gurasoen garaitik. Orain berriz dena aldatuta dago.</p>

12. Umea jaio aurretik bataioa prestatzen zuten

- **Erref:** BID-014/015
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:35:55. **Bukatu:** 00:37:23

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Sakramentuak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak

Laburpena:

<p>Umeak jaio bezain azkar bataiatu egin behar izaten zen, hiltzen bazen linbora joan ez zedin. Orain gauzak asko aldatu dira. Umea jaio aurretik bataioa prestatuta izaten zuten.</p>

13. Haurdunaldiak eta erditzeak

- **Erref:** BID-014/016
- **Iraupena:** 0:06:14. **Hasi:** 00:37:23. **Bukatu:** 00:43:37

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikuek eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Haurdun egon arren ez ziren medikuarengana joaten. Erditzerakoan

medikua etortzen zitzairen. Erditzean izandako arazoak kontatzen ditu. Umea erditu eta berehala, ur bedeinkatuarekin medikuak berak bataiatu zuen.</p>

14. Medikuari ume gehiago ez ekartzeko zer egin galdetu zioten

- **Erref:** BID-014/019
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:52:55. **Bukatu:** 00:54:06

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Jaiotzak
- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Medikua eta sasimedikuak

Laburpena:

<p>Familia handia zirela eta medikuari zer egin behar zen galdetzen zioten, baina ez zien erakusten.</p>

15. Garai batean dena belarrekin sendatzen zuten

- **Erref:** BID-014/021
- **Iraupena:** 0:01:26. **Hasi:** 00:55:50. **Bukatu:** 00:57:16

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Osasuna » Erremedioak

Laburpena:

<p>Enplastuak egiten zituena Tolosan zegoen. Garai haietan dena sendabelarrekin konpontzen zuten.</p>

16. Hilerokoaren inguruko arazoak

- **Erref:** BID-014/027
- **Iraupena:** 0:04:34. **Hasi:** 01:09:11. **Bukatu:** 01:13:45

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizaren indarra
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Sexua

Laburpena:

<p>Hilerokoarekin izandako arazoak kontatzen ditu. Mina izan arren lanera joan behar izaten zuten. Gaia horiek ezkutuan eramaten ziren. Pascualaren amaren garaian ez omen zuten ezer erabiltzen gonaren azpitik. Hilerokoarekin zeuden emakumeak txerria hil ondoren egin beharreko lanetarako aproposak ez zirela esaten zuten.</p>

17. Neskame Pasaian

- **Erref:** BID-014/028
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 01:13:45. **Bukatu:** 01:17:17

Gaia(k):

- Baserria

- Familia eta harremanak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Hemezortzi urte zituela, baserriaren kargua hartzea tokatu zitzaion. Pascuala Pasaiaiko baserri batean ere egon zen lanean. Bertan señorito bat zegoen, eta hari goizero gosaria ohera eraman behar izaten zioten. Bi neskame eta morroi bat bizi ziren etxean. Aita hil ondoren, etxera itzuli zen baserriaz arduratzeraz.</p>

18. Pasaiaiko etxeko jabeari señorito esaten zioten

- **Erref:** BID-014/030
- **Iraupena:** 0:01:39. **Hasi:** 01:17:33. **Bukatu:** 01:19:12

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Lanbideak » Neskameak

Laburpena:

<p>Aita hil ondoren Pascuala etxera itzuli zen, eta bere ordez ahizpa joan zen Pasaiaiko etxera neskame bezala. Etxe hartako señoritoa fragata kapitaina omen zen; gizon atsegina eta oso jakituna.</p>

19. Senarra izango zuenarekin nola hasi zen harremanetan

- **Erref:** BID-014/032
- **Iraupena:** 1:12:20. **Hasi:** 01:22:40. **Bukatu:** 02:35:00

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Bikote kontuak » Ligatzea

Laburpena:

<p>Senarra Asteasukoa zuen. Gerratik itzuli zela esan ziotenean pozik jarri zen. Elkarrekin ateratzen nola hasi ziren kontatzen du. Mutilak gurasorik ez zituen. Eskolarik gabekoa zen.</p>

20. Umetan jolas eta eskola gutxi eta lana asko

- **Erref:** BID-016/001
- **Iraupena:** 0:03:32. **Hasi:** 00:00:00. **Bukatu:** 00:03:32

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako lanak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Jostailurik ez zuten. Jokoak bestelakoak ziren. Apustuak egiten zituzten, ea nork irabaziko. Denbora libre gutxi izaten zuten. Soroko lanak egin behar izaten ziren umetatik. Eskolara ere gutxitan joaten ziren. Abereekin batzuetan beldurra ere pasatzen zuten, eta horregatik kaletarrak ziruditela esaten zien.</p>

21. Amak anaiari bertso paperak erosten zizkion Tolosan larunbatero

- **Erref:** BID-016/003
- **Iraupena:** 0:03:08. **Hasi:** 00:05:14. **Bukatu:** 00:08:22

Gaia(k):

- Aisia » Kultura » Musika
- Baserria » Baserriko lanak » Herrira saltzera, eroatera
- Aisia » Kultura » Bertsolaritza

Laburpena:

<p>Anaia beti kantuan edo txistuka ibiltzen zen. Kanta euskaldunak abesten zituen. Askotan bertsoan ibiltzen zen. Tolosatik bertso paperak ekartzen zizkion amak larunbatetan. Behin amonak bertsoak ekarriko zizkiola esan, eta elizako kantuak ekarri zizkion. Bertso haiek gero buruz ikasten zituen.</p>

22. Neguan amonak ipuinak kontatzen zizkien

- **Erref:** BID-016/005
- **Iraupena:** 0:01:12. **Hasi:** 00:09:02. **Bukatu:** 00:10:14

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:

<p>Amonak neguan, artoa zuritzen ari zirenean, ipuinak kontatzen zizkien. Asmakizunetara ere jolasten ziren.</p>

23. Umeei asko abesten zitzaien

- **Erref:** BID-016/013
- **Iraupena:** 0:03:00. **Hasi:** 00:21:20. **Bukatu:** 00:24:20

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Haurrak zaindu eta hezi
- Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Kultur transmisioa

Laburpena:

<p>Makina bat sehaska kanta abesten zituzten. Lana egin ahal izateko, umeak lo arazi behar izaten ziren. Asko kantatzen zitzaien. Haur kotxerik ez zutenez, umeak eramateko ahal bezala moldatzen ziren.</p>

24. Aspaldiko kantuak gogoratzen

- **Erref:** BID-016/014
- **Iraupena:** 0:01:52. **Hasi:** 00:24:20. **Bukatu:** 00:26:12

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Kantak

Laburpena:

<p>Lehengo kanta zaharrak gogoratzen dituzte.</p>

25. Umetan dendaritara jolasten

- **Erref:** BID-016/018
- **Iraupena:** 0:00:54. **Hasi:** 00:30:54. **Bukatu:** 00:31:48

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Jolasak

Laburpena:

<p>Umetan dendetara jolastea asko gustatzen zitzaien. Korrika ibiltzea ere gustuko zuten.</p>

26. Elizara gustura joaten ziren

- **Erref:** BID-016/019
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:31:48. **Bukatu:** 00:33:04

Gaia(k):

- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak
- Ohiturak eta bizimodua » Erlijioa » Elizkizunak eta otoitzak

Laburpena:

<p>Elizara nobenara joaten ziren. Bertan kantatu egiten zuten. Elizara gustura joaten ziren. Abestiak latinez izaten ziren. Arratsaldean bezperetara joaten ziren.</p>

27. "Charlatan" herriko plazan saltzen

- **Erref:** BID-016/020
- **Iraupena:** 0:01:11. **Hasi:** 00:33:04. **Bukatu:** 00:34:15

Gaia(k):

- Lanbideak » Antzinako lanbideak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Umetako kontuak

Laburpena:

<p>Plazan "charlat´n" esaten zioten gizon bat egoten zen, gauzak saltzen. Hari begira denbora pasatzen zuten.</p>

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.

2026-09-20

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkarte

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com